



BILBOKO TRENBIDEAREN ATZETIK SIGUIENDO LA VIA DEL TREN POR BILBAO AMETZOLA, SAN ADRIÁN, ABUSU-LA PEÑA


2025 DOAKO BISITA GIDATUAK / Maiatza, ekaina eta uztaila
VISITAS GUIADAS GRATUITAS / Mayo, junio y julio



Bilbao

Bisita egiteko kontutan hartu beharrekoa:

- Kalean, aire zabalean, oinez egiten den bisita gidatua da. Hori dela eta, euria egiten badu, jarduerari eutsiko zaio, nahiz eta pixka bat alda daitekeen.
- Plazak bilbaoizan.eus helbidean erreserbatuko dira. Izena ematerakoan, inskribatzen direnen datu pertsonal hauek idatzi beharko dira: izen – abizenak, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia.
- Bisita gidatua egin ahal izateko, beharrezkoa izango da aldez aurretik izena emanda egotea.
Plaza erreserbatu ez duenak ezingo du egin bisita.
- Bisita gidatua egingo duten haur txikiak beste pertsona bat bezala zenbakituko dira.
- Bisan zehar errazago entzuteko, erradiogida bana emango zaie parte-hartzaileei. Horregatik, hasiera-ordua baino 10 minuto lehenago topalekura iristeko eskatzen dizuegu.
- Bisita gidatuek ordu eta erdiko iraupena izango dute, gutxi gora behera, eta batzuetan euskaraz izango dira eta beste batzuetan gazteleraz. Bisita gidatua **euskaraz** egin nahi duten **partikularrek ostegun arratsaldeetan** egin ahal izango dute. Eta euskaraz egin nahi duten **taldeak** badaude, gutxienez 15 pertsonetako taldea osatu beharko dute eta beraiekin adostuko dira eguna eta ordua. Horretarako **bilbaoizan.eus** gunearen bidez egingo dute **eskaera**.
- Bisita gidatua ezin bada egin erreserbatutako egunean eta orduan, bilbaoizan.eus helbidean, "**plaza bertan behera utzi**" aukera erabiltzea eskatzen dugu, plaza hori beste pertsona batek bete ahal izateko. Plazak mugatuak direnez gero, ahal dugun guztia egin dezagun guztiaren artean taldeak beti osatuta egon daitezen.



Bisita egingo den auzo bakoitzean, talde batek zeinu hizkuntza interpretea izango du. Irudi honek zein taldek izango duen interpretea adierazten du, bilbaoizan.eus helbidean.

Para la visita, tengan en cuenta que...

- Es una visita guiada que se realiza a pie por la calle, al aire libre. Por ese motivo, en caso de lluvia se mantiene la actividad, aunque puede ser ligeramente modificada.
- La reserva de plazas se realizará en la dirección bilbaoizan.eus. A la hora de hacer la reserva, se solicitarán los siguientes datos personales de cada participante: nombre y apellidos, email y teléfono.
- El día de la visita guiada será necesario que la persona esté inscrita con anterioridad.
Quién no haya reservado plaza no podrá realizar la visita.
- Las y los menores que vayan a realizar la visita guiada se contabilizan como una persona más.
- Para facilitar la escucha durante la visita, se facilitará una radioguía a cada participante. Por este motivo, se solicita llegar al punto de encuentro 10 minutos antes de la hora de inicio.
- Las visitas guiadas tendrán una duración de hora y media, aproximadamente. Y algunas serán en euskera y otras en castellano. Las personas **particulares** que quieran hacer la visita guiada en **euskera** podrán hacerlo los **jueves por la tarde**. Y, en el caso de **grupos en euskera**, tendrán que formar grupo un mínimo de 15 personas y se acordará con el grupo la fecha y hora a demanda. Esta **solicitud** se hará a través de **bilbaoizan.eus**.
- En caso de no poder asistir a la visita guiada en el día y la hora reservada, solicitamos que se haga uso de la opción “**darse de baja**”, en la dirección bilbaoizan.eus, para que esa plaza pueda ser ocupada por otra persona. Dado que las plazas son limitadas, hagamos lo posible para que los grupos estén siempre completos.



En cada barrio a visitar, uno de los grupos contará con intérprete de lengua de signos.
Este símbolo indica, en la dirección bilbaoizan.eus, qué grupo va a contar con intérprete.



maiataza mayo AMETZOLA

Ametzola auzoak aldaketa asko izan ditu azken ehun urteetan. Bere lurak Abandoko elizatearen eskumenekoak izan ziren 1890era arte. Bertan zeuden Abandoko Udaletxea eta frontoia, zezen-plaza, eskolak eta baita bola-toki bat ere! Gero trenbideak eta merkantzien geltokia, perituen eskola eta kioskoaren ondoko dantzaldiak etorri ziren. Eta, XX. mendearren amaierarekin, hirigintza arloko eraldaketak, merkantzia-trenak ibilitako lurak herritarren gozamenerako berreskuratu zituen. Historiaz betetako auzo honetan barrena ibiliko gara eta berau deskubrituko dugu.

El barrio de Ametzola ha sufrido muchos cambios en los últimos cien años. Sus terrenos fueron jurisdicción de la anteiglesia de Abando hasta 1890. Allí estaban la Casa Consistorial y el frontón de Abando, la plaza de toros, también las escuelas y ¡hasta un juego de bolos! Luego vendrían las vías y la estación de mercancías, la escuela de peritos y los bailables junto al kiosko. Y, con el final del siglo XX, la transformación urbanística recuperó para el disfrute de la ciudadanía los terrenos por donde habían transitado los trenes de mercancías. Vamos a recorrerlo y descubrir este barrio repleto de historia.

Izen-ematea noiztik aurrera: maiatzaren 5etik aurrera, 9:00etatik aurrera, www.bilbaoizan.eus helbidean
Fecha de inicio inscripciones: a partir del 5 de mayo, a las 9:00, en www.bilbaoizan.eus

Bisitaren topalekua / Punto de encuentro para la visita: Kiosko de la Casilla s/n

Zelan heldu / Cómo llegar: Bilbobus (18, 27, 38, 48, 58, 72, 77, 85, 88), Renfe: C1 - C2 (Autonomía)



ekaina junio SAN ADRIÁN

Baserriz, meategiz eta erromeriaz betetako iragana du San Adrián auzoak. Pagasarri mendiaren magalean dago eta hasieran baratzeak eta abereentzako larreak zituen landa-eremua izan zen. Industrializazioaren etorrerak eta meategietatik eta trenbidetik gertu egoteak auzoan ezarri ziren gero eta langile gehiago erakarri zituen. XX. mendearren amaieran eta XXI. mendearren hasieran, San Adriánek bere azpiegiturak eta sarbideak eraldatzeko eta hobetzeko prozesua bizi izan du, baina oraindik bere jatorrizko izaera eta jendearen istorioak jaso ditzakegu kaleetan barrena paseatzen ari garen artean.

El barrio de San Adrián tiene un pasado de baserris, minas y romerías. Situado a los pies del monte Pagasarri, fue en sus inicios una zona rural, con huertas y pastos para el ganado. La llegada de la industrialización y su ubicación próxima a las minas y el ferrocarril, atrajeron a una creciente población trabajadora que se estableció en el barrio. A finales del siglo XX y principios del XXI, San Adrián experimenta un proceso de transformación y mejora de su infraestructura y accesos, pero aún podemos percibir su carácter original y las historias de sus gentes cuando paseamos por sus calles.

Izen-ematea noiztik aurrera: ekainaren 2tik aurrera, 9:00etatik aurrera, www.bilbaoizan.eus helbidean
Fecha de inicio inscripciones: a partir del 2 de junio, a las 9:00, en www.bilbaoizan.eus

Bisitaren topalekua / Punto de encuentro para la visita: San Adrián Etorbidea 7 / Avda de San Adrián, 7

Zelan heldu / Cómo llegar: Bilbobus (57, 71, 75, 76), Renfe: C3 (Miribilla)



uztaila julio

ABUSU - LA PEÑA

Mendien eta itsasadarraren artean, landaren eta hiriaren artean, Abusuk bere izaera herrikoiari eta, era berean, bere oinordetza industrialaren eta bizitegi garapen berrien arteko orekari eusten die. Itsasadarraren ertzetik auzoa igarotzen dugun bitartean, errotei, burdinolei, garbitegiei, meategiei, desagertutako uharte bati, lantegiei, tranbiei, trenei, Erdi Aroko bide bati... eta bertako kaleen artean ezkutatzen diren askoz bitxikeria gehiagorri buruz hitz egingo dugu. Zatoz eta ezagutu bere historiari buruzko pixka bat gehiago!


Entre montes y la ría, entre el campo y la ciudad, La Peña conserva su carácter popular y, a su vez, el equilibrio entre su herencia industrial y los nuevos desarrollos residenciales. Mientras recorremos este barrio por la ribera de la ría, hablaremos de molinos, ferrerías, lavanderas, minas, una isla desaparecida, fábricas, tranvías, trenes, un camino medieval... y muchas más curiosidades que se esconden entre sus calles. ¡Ven y conoce un poco más sobre su historia!

Izen-ematea noiztik aurrera: ekainaren 30etik aurrera, 9:00etatik aurrera, www.bilbaoizan.eus helbidean
Fecha de inicio inscripciones: a partir del 30 de junio, a las 9:00, en www.bilbaoizan.eus

Bisitaren topalekua / Punto de encuentro para la visita: Zamakola, 59 (elizaren aurrean / frente a la iglesia)

Zelan heldu / Cómo llegar: Bilbobus (40, 56), Renfe: C3 (La Peña)

BILBOKO UDAL ARTXIBOA.
Funtsa: Ricardo Bastida. Egilea: Ezezaguna.
ARCHIVO MUNICIPAL DE BILBAO.
Fondo: Ricardo Bastida. Autor: Desconocido.



Txio Ta Txio

Edizio honetan, Txio Ta Txio bideoek *BILBOKO ESKOLAK* izango dute izenburu gisa, eta uriko eskolak eta hezkuntza izango dituzte ardatz. Hala, gai horri buruzko pasadizo txikiak, kontu ezezagunak, nabarmendu beharreko pertsonaiak edo istorio bitxiak kontatuko dizkigute, formatu xumean eta atseginean, begiratzeko eta partekatzeko moduan. Irailetik aurrera, jarrai gaitzazu sare sozialetan, ikusi bideo-bilduma berria eta... partekatu!

Bestalde, aurreko urteetako Txio Ta Txio bideo-bildumak berriz ikusi nahi badituzu, idatzi Bilbao Kultura YouTube-n, eta 2018tik aurrera zabaldu ditugun 262 bideoak ikusteko parada izango duzu. Beraz, aurkezleak dioen moduan, has gaitezen hasieratik!

En esta edición, los vídeos Txio Ta Txio tendrán como título "*LAS ESCUELAS DE BILBAO*" y se centrarán en las escuelas de nuestra Villa y la educación. En los vídeos nos contarán pequeñas anécdotas, datos desconocidos, personajes destacables e historias curiosas sobre el tema, en un formato sencillo y agradable, fácil de ver y compartir. A partir de septiembre, síguenos en redes sociales, ve la nueva colección de vídeos y ¡comparte!

Por otro lado, si quieras volver a ver las colecciones de Txio Ta Txio de años anteriores, escribe Bilbao Kultura en YouTube, y podrás ver los 262 vídeos que hemos difundido desde 2018. Así pues, como bien dice la presentadora: ¡empecemos por el principio!

BILBAO BALIOEN HIRIA



BILBAO CIUDAD DE VALORES

Bilbao Izan erabat bat dator Bilbao Balioen Hiria proiektuarekin, Bilbon balio partekatuen esparru bat sustatu nahi baitu. <https://balioenhiria.bilbao.eus/eu>

Bilbao Izan está plenamente comprometido con el proyecto Bilbao Balioen Hiria, que aspira a fomentar un marco de valores compartidos en la ciudad de Bilbao.
<https://balioenhiria.bilbao.eus/es>

Lagunzailea / Colabora:



ⓘ www.bilbaoizan.eus

Bilbao Izan

Bilbao Kultura

(-.)
izan
BILBAO

B
Bilbao